

(2016-1-22an argitaratutako prentsa oharra)

BIZKAIKO ELEIZEAREN INMATRIKULAZINOEN INGURUAN

1. Ondasunen jabetza

Gainontzeko persona fisiko eta juridikoen modura, Eleizeak bere jabegokoak diran ondasunak erregistratu leikez. Erregistroan inskripzioa egitea bakotxaren borondatearen araberakoa da.

“Jabeduna nazalako erregistratzen dot ondasuna, ez da ondasuna nirea inskribatzen dodalako”

2. Inmatrikulazioa

Inmatrikulazioa da Ondasunen Erregistroan egiten dan lehenengo izen emotea.

Bide bat baino gehiago dagoz ondasunak inmatrikulatzeko. Alde batetik, ohiko prozedurak, hau da; edozein personak erabili leikezanak. Bestetik, ez ohiko prozedurea, Administrazioak eta Eleizeak be, 2015eko ekainera arte, erabili eikeana.

Baina ez ohiko prozedura hau erabilz (206. Artikuluaren egiaztagiria), katastroaren egiaztagiri deskriptiboa eta grafikoa behar da eta inmatrikulazioa egin gura dauanaren izenean agertu behar da ondasun hori katastroan. Agiri guzti honeek zuzen dagozala egiaztatzen dauana Erregistroa da.

“Inork ezin dau bere izenean ez dagoan ondasunik inmatrikulau eta hori segurtatzeko Ondasunaren Erregistroa dago”

3. 2015eko Hipoteka Legearen Erreformearen ondokoak

Orain eta etorkizunean be Eleizeak jarraitu leike bere ondasunak Erregistroan Inmatrikulatzen?

Bai, gainontzeko personek erabilten dabean bideak erabiliz.

Eleizeak bere jabetzakoak diran ondasunak baino ez dauz inmatrikulatzen eta ondasun horreen ganean eskubide hobeak daukazala uste badau norbaitek, inskripzio horreek atzera bota leikez bide legal guztiak erabiliz.

“Eleizeak ez dau berea ez dan ezer inmatrikulau”

